

**AGINDUA, ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA EAE-KO HAURRAK ETA NERABEAK ZAINTEKO ETA BABESTEKO UDALETAKO ETA LURRALDEETAKO GIZARTE-ZERBITZUETAN BABESGABETASUN-EGOEREN LARRITASUNA BALIOESTEKO TRESNA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEA.**

Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritzak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean (aurrerantzean, **“XOEPL”**) aurreikusitako administrazio-prozedurari jarraituko dio, EAEn haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko.

Adingabeen babesa botere publikoen funtsezko erantzukizuna eta gizarte-zerbitzuen sistemaren ardatz egituratzailea izan da. Lege-agindu hori azaroaren 8ko 230/2011 Dekretuaren bidez gauzatu zen. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onartu zuen (Balora), eta, era berean, aipatutako udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek nahitaez erabili beharra ezarri zuen.

Dekretua onartu zenetik bost urte igaro ondoren, tresna horren ezarpen-prozesuaren, erabilera-mailaren, eraginaren eta lortu nahi ziren helburuen lorpenaren balorazioa egin zen, arreta berezia jarritz tresnaren alderdi bakoitzean dauden zailtasunen edo hobekuntza-premien identifikazioari. Gainera, uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legea onartu ziren. Lege horiek haurrak eta nerabeak babesteko erakunde juridikoen berrikuspen eta aldaketa sakona ekarri zuten, eta, aldi berean, arau-esparru komun bat ezarri zuten oinarritzko erregulaziorik edo arau-garapenik ez zuten gai jakin batzuei dagokienez.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta tresna hori egokitze aldera, 152/2017 Dekretua argitaratu zen, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko tresna eguneratzea onartzen zuena (Balora).

Tresna hori diseinatu zen arrisku- eta desanparo-egoeren identifikazioan eta balorazioan zehaztasun handiagoa emateko, lehendik zeuden kasuak argiago zehaztuz eta sistemaren segurtasun juridikoa indartzen zuten beste kasu batzuk sartuz. Era berean, sakonago garatzen zituen arrisku- edo desanparo-egoera erabakigarriak, eta aukera ematen zuen haien larritasuna mailakatzeko eta zorrotasun handiagoz ezartzeko arrisku-maila edo babesgabezia-egoera. Tresnak irizpide tekniko zehatzagoak gehitzen zituen interpretazio egokia errazteko eta ziurgabetasun profesionala murrizteko, funtsezko helburu gisa mantenduz lan teknikoa hobetzea, esku hartzeko prozesuak bizkortzea eta udal- eta lurralde-zerbitzuen arteko koordinazioa indartzea, haurrei, nerabeei eta familiei arreta eraginkorragoa eta koherenteagoa bermatzeko.

Hala ere, gaur egun, egiaztatu da konfigurazio hori indarrean dauden eskakizun juridikoekin bat ez datorren arau-esparru batetik datorrela, eta beharrezkoa da horren berrikustea eta



eguneratzea egitea, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak (aurrerantzean, “**HNIUBL**”) eta Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legeak (aurrerantzean, “**HNL**”) sartutako aurreikuspen, kategoria juridiko, printzipio gidari eta jarduketa-irizpideekin bat datozela ziurtatzeko.

Lehendabizikoari dagokionez, indarrean jartzeak indarkeria mota ororen aurkako babes-neurriak integratzeko beharra indartzen du, prebentziorako, detekziorako eta jarduteko irizpide argiak ezarriz, balorazio-tresna teknikoetan sartu beharrekoak. Era berean, HNLa onartzeak haurren babesgabetasunari aurre egiteko sistema argiagoa, prebentiboagoa eta koordinatuagoa sartzen du, arrisku-kasuak zabalduz, detekzio goiztiarra indartuz, koordinazio instituzionala hobetuz eta esku-hartze homogeneoagoa eta adingabearen interes gorenean zentratuagoa bermatuz.

Era berean, adierazi behar da ezen, arau-esparruan sartutako aldaketez harago, ezinbestekoa dela indarrean dagoen tresna eguneratzea, kontuan hartuta gizarte-errealitatearen bilakaera, esku hartzeko premia berriak agertzea eta haurrei eta nerabeei eragiten dieten egoerak gero eta konplexuagoak direla.

Beharrezkoa da, beraz, egungo estandar teknikoetara eta euskal babes-sistemaren eskaera operatiboetara egokitzea, erantzun egokiagoak, koherenteagoak eta eraginkorragoak bermatuz. Ondorioz, egokia eta beharrezkoa da Balora tresna arautuko duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea, haurrak eta nerabeak babesteko euskal sistemari tresna tekniko bat emateko, indarrean dagoen arau-esparruarekin guztiz bat datorrena eta esku-hartze eraginkorragoak, homogeneoagoak eta bermatzaileagoak ziurtatzera bideratua.

Horregatik guztiagatik, honako hau,

## **EBAZTEN DUT**

**LEHENENGOA.** – EAEko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura has dadila agintzea, aldi berean I. eranskinean jasotako jarraibide espezifikoak errespetatuz.

**BIGARRENA.** - Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritza izendatzea lehen aipatutako dekretu-proiektua egiteko organo arduradun, bai eta dagokion prozedura bideratzeko eta izapidetzeko ere.

**HIRUGARRENA.** – Agindu honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, XOEPLren 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** – Aplikatzekoa den araudian aurreikusitako azterlanak eta kontsultak egitea, eta araua egiteko beharrezkoak diren txostenak biltzea, haren egokitasuna, legezketasuna eta helburuak hobeto lortzea bermatuz.

**BOSGARRENA.** - Xedapen orokorrak izapidetzeko eredia eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, bat etorri Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko

Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenarekin, zeinaren bidez xedatzen baita argitaratzea arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarritzko eredua onartzen duen erabakia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorritz.

**SEIGARRENA.-** Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia aktiboki argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,  
NEREA MELGOSA VEGA

## I ERANSKINA

Hasteko agintzen den dekretu-proiektua egitean, inguruabar hauek hartuko dira kontuan:

### 1.- Xedea eta helburua

Dekretu-proiektuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek erabiltzen duten tresna teknikoa arautzea, haurren eta nerabeen babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko.

Dekretuaren helburua da gizarte-zerbitzuek haurren eta nerabeen babesaren arloan egiten duten jarduna irizpide homogeneo, objektibo eta oinarrituekin egiten dela bermatzea, honako hauek ahalbidetuz: kalteberatasun-egoeren detekzio goiztiarra, babesgabetasun-mailaren balorazio indibidualizatua eta proportzionala, hartutako erabakien oinarri tekniko eta juridikoa, eta udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuen jardunaren koordinazioa eta koherentzia sustatzea, betiere adingabearen interes gorena lehentasunezko irizpide gisa hartuta.

Orain arte, maiatzaren 9ko 152/2017 Dekretua aplikatu da, Balora tresna eguneratu eta azaroaren 8ko 230/2011 Dekretua berriaz indargabetu zuena, haren hasierako bertsioa onartu baitzuen. Hala ere, haurren eta nerabeen arloko arau-esparruaren eraldaketa garrantzitsuek, gizarte-errealitatearen bilakaerak eta esku hartzeko premia berrien agerpenak eragin duten agertokian, indarrean dagoen araudiak jada ez du erantzun guztiz egokirik ematen.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da tresna berriro eguneratzea, aukera egokiagoa eta eraginkorragoa baita egungo eskakizunekin bat ez datorren erregulazioa mantentzea baino.

### 2.- Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Egingo den araua bideragarria da juridikoki eta materialki.

Balorazio-tresna teknikoaren erregulazioa haurrak babesteko sistema publikoaren esparruan sartzen da, eta arlo horretan Estatuaren eta autonomia-erkidegoen eskumenak biltzen dira.

Eskumen-banaketaren esparru orokorra 149.1 artikuluan ezartzen da, Espainiako Konstituzioaren 148.1.20 artikuluekin lotuta. Manu horien arabera, Estatuari dagokio Konstituzioko eskubideak baliatzean eta eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatuko duten oinarritzko baldintzak finkatzeko eskumen eskusiboa ( bai eta legeria zibilaren gaineko eskumena ere ( 149.1.8). Bestalde, autonomia-erkidegoek gizarte-laguntzaren arloko eskumenak har ditzakete beren gain ( 148.1.20).

Eskumen horiek baliatuz, Estatuak haurrak babesteko sistemaren oinarritzko arau-esparrua ezarri du, besteak beste, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren eta Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralari buruzko 8/2021 Lege Organikoarekin batera.

Era berean, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, oinarritzko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zainduko dute (9.2.a), bizi-baldintzak hobetzera

bideratutako politikak bultzatuko dituzte ( 9.2.b) eta neurriak hartuko dituzte askatasunaren eta berdintasunaren benetako eraginkortasuna bermatzeko (9.2.c). Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumenak ditu gizarte-laguntzaren arloan (10.12 artikulua) eta adingabeen babes eta tutoretzarako erakunde eta establezimenduen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua (10.14) artikulua, Autonomia Estatutuarena.

Ilido beretik, Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legearen (HNL) 319.1.a) artikulua Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio legegintza-ekimena haurren eta nerabeen eskubideetan eragina duten Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusiboko edo lege-garapeneko gaietan, bai eta arlo horretako legeria autonomikoaren arau-garapena ere. Ondorioz, Administrazio autonomikoari dagokio gizarte-zerbitzuen eta haur eta nerabeen babesaren arloko araudia garatzea eta betearaztea.

Are gehiago, HNLren 319.2 artikulua ezartzen du Eusko Jaurlaritzari dagokiola zuzenean jardutea babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko eta arrisku arin, moderatu, larri edo babesgabeziatzat jotzeko tresna tekniko landu eta onartzeari buruzko betearazpen-eskumenak, lege beraren 172.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren arabera, Haur, Nerabe eta Familia Zuzendaritzari dagokio erregelamendu bidez garatzeko araudi-proposamenak eta analisiak egitea honako gai hauetan, Sailaren eskumenen esparruan, eta gai horiei buruzko Estatuko eta autonomia-erkidegoko legeriarekin bat etorriz: familientzako, haurrentzako eta nerabeentzako laguntza.

### **3.- Ordenamendu juridikoan izango duen eragina**

Balora tresna egokitzea gizarte-zerbitzuen eta adingabeen babesaren arloko eskumen-eremu autonomikoan erabat txertatuta dagoen garapen tekniko eta antolamenduzkoa da, eta Estatuko eta autonomia-erkidegoko arau-esparru berriaren eta gizarte-errealitatearen bilakaeraren arabera eguneratzea ahalbidetzen du.

Dekretu berria indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko da 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko BALORA tresnaren eguneratzea onartzen duena.

### **4.- Aurrekontuan izango duen eragina.**

Balora tresnaren eguneratzeak ez dakar aurrekontu-eraginik, ez baitakar administrazio-egitura berriak sortzea, langile-zuzkidurak handitzea edo betebeharrak ekonomiko gehigarriak bere gain hartzea, eta administrazio autonomikoan jada eskuragarri dauden giza baliabideen barruan dagoen tresnaren berrikuspen teknikora eta araudira mugatzen da.

### **6.- Egokitzeak jotzen diren izapideak eta txostenak**

XOEPLren 13.1 artikulua e) apartatua xedatutakoaren arabera, hasteko aginduan adieraziko da zer izapide eta txosten egin behar diren, proposatutako erregulazioaren gaia eta

edukia kontuan hartuta. Adierazitakoa kontuan hartuta, jarraian zehazten dira aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko behar diren izapideak eta txostenak.

Prozeduraren izapidetzea, zeinaren izapideak eta txostenak jarraian zehazten baitira, izapidetze elektronikorako "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikoa izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen 2012ko azaroaren 27ko Jaurlaritzaren Erabakiaren arabera.

#### 6.1.- Aldez aurreko kontsulta herritarrei

Xedapen orokorrak egiteko aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritz, 2026ko maiatzaren 20an argitaratu da herritarrentzako aurretiazko kontsulta publikoa, XOEPLren 11.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### 6.2.- Hasteko agindua argitaratzea

XOEPLren 13.2 artikulua arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legegunean argitaratuko da. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

Era berean, eta Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28ko bilkuran hartutako Erabakiaren lehenengo apartatuan xedatutakoarekin bat etorritz (erabaki horren bidez, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen dira), hasteko agindua ezagutza partekatuko Legesarea lankidetzagunean jakinaraziko da.

#### 6.3.- Testua idaztea

Dekretu-proiektua egiteko, oinarritzat hartuko dira Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erakundearteko talde teknikoan egindako lanak.

Talde hori Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunak koordinatuko du, eta udaletako gizarte-zerbitzuetako eta foru-aldundietako babes-zerbitzuetako teknikariek osatuko dute. Talde hori izango da Balora tresnaren eguneratzearen oinarri izango diren irizpideak, proposamenak eta gomendio teknikoak definitzeko formalki ezarritako gunea. Berrikuspen-lanek, halaber, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) laguntza metodologikoa eta ezagutza espezializatua izango dute, eta prozesuaren sendotasun teknikoa eta zientifikoa indartuko dute.

Lehen zirriborro teknikoa egin ondoren, gizarte-zerbitzuetako profesionalei helaraziko zaie — psikologoak, gizarte-langileak, gizarte-hezitzaileak eta bestelako profil espezializatuak —, sistema osoaren esperientzia praktikoa tresnaren berrikuspenean integratzea ahalbidetuko duten ekarpenak biltzeko.

Dekretu-proiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsulten

emaitzak ere. XOEPLren 14.2 artikuluan xedatutakoa betez, testuak arau-zehaztapena justifikatzen duten arrazoien eta oinarri juridikoen azalpen egokia jasoko du.

Era berean, proiektua idazteko, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen 2023ko uztailaren 11ko Erabakian ezarritakoa beteko da. Erabaki hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpenaren bidez argitaratu zen. Ateratzen den testua bi hizkuntzetan idatzi beharko da, aldez aurretik onartu eta ondoren araudia izapidetu baino lehen.

#### 6.4.- Aldez aurreko onarpen-agindua

Dekretu-proiektuaren testua egin ondoren, aldez aurretik onartu beharko da, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren agindu bidez, XOEPLren 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratuko da, bereziki XOEPLren 16.3 eta 17.3 artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kontuan hartuta argitalpen horren data izango dela aldi berean bultza daitezkeen eta bata bestearen ondoren bete behar ez diren izapide guztiak betetzeko epearen hasiera.

Aurretiko onarpen-agindua, arau-proiektuarekin batera, Legesarea eta Legegunearen lankidetzaguneetan jakinaraziko da.

#### 6.5.- Generoaren araberako eraginari buruzko txostena

XOEPLren 14.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren araberako eraginari buruzko txostena egingo da, eta Emakunderen esku jarriko da, legerian jasotakoa hobetu ahal izateko.

Txosten honen beharra bat dator Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan ezarritakoarekin (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), eta, txostena egiteko, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideak beteko dira (2012ko irailaren 25eko EHAA-n argitaratu zen, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez).

#### 6.6.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria

XOEPLren 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo du, nahitaez, xedapen horretan aurreikusitako moduan eta edukiarekin.

#### 6.7.- Txosten juridikoa

XOEPLren 15.4 artikulua honako hau ezartzen du: «*Dagokion sailak egoki iritziz gero, espedientearen edukia eta analisi juridikoa txosten juridiko espezifiko batean jasoko dira. Txosten hori prozedura bideratu duen saileko zerbitzu juridikoak egingo du, memorian aipatuko da, eta haren betebeharra izango da geroko izapidetze-prozesuari begira proiektuaren oinarrien defentsa juridikoki eustea, eta oinarritzea edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorrela eta betetzen direla kasuan kasu ezartzen diren araugintza-teknikaren gaineko jarraibideak.*».

Ondorio horietarako, agerian geratzen da ez dela beharrezkotzat jotzen Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoak txosten juridikoa egitea.

#### 6.8.- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa

XOEPLren 16. artikulua arabera, eta administrazio-sinplifikazioaren printzipioaren arabera, batera eta egintza bakar batean bideratuko dira izaeragatik batera bultza daitezkeen eta bata bestearen ondoren bete beharrekoak diren izapideak.

Illo horretan, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak egingo dira, XOEPLren 17. artikulua aplikatuz, eta XOEPLri horren berri emango zaio, jarraian adierazten den moduan.

Entzunaldia eta, hala badagokio, informazio publikoa, hilabeteko epean egingo da, aurretiazko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Aipatutako 17. artikulua 2. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik, entzunaldia zuzenean egingo da, edo eragindako herritarrak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta legeak aitortzen dituen erakunde eta elkarten bidez, baldin eta haien helburuek lotura zuzena badute xedapenaren xedearekin.

Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideei dagokienez, jarduketa hauek egingo dira:

- a) Dekretu-proiektua entzunaldirako eta jendaurrean jartzeko ebazpena EHAAr argitaratuko da. Ebazpen horrek esteka bat izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, eta bertan eskuragarri egongo da dekretu-proiektuaren testua, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten 15 egun balioduneko epean, ebazpena EHAAr argitaratzen denetik aurrera.
- b) Ebazpen bera eta dekretu-proiektuaren esteka Irekian argitaratuta egongo dira.

#### 6.9.- Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioek parte hartzea eta haiei kontsulta egitea

Hilabeteko epe komun berean, xedapenaren testuaren alde aurreko onarpena argitaratzen denetik, eta XOEPLren 18. artikuluan ezartzen den bezala, aurreikusitako erregulazioak zuzenean eragin diezaiekeen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei parte hartzeko aukera emango zaie.

Horretarako, Arartekoaren erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 c) artikulua araber, Arartekoari parte hartzeko aukera emango zaio. Gainera, Familien Euskal Behatokia sortu eta arautzen duen azaroaren 23ko 309/2010 Dekretuaren 3.2 artikulua araber, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen 35.c) artikuluari dagokionez, Familien Euskal Behatokiak parte hartuko du.

#### 6.10.- Funtsezkoak ez diren txostenak eta irizpenak

XOEPLren 16. artikulua araber, funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira, eta guztiak aldi berean eta 15 eguneko epe berean egingo dira.

- **Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena,** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoaren araber.
- **Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena,** honako hauetan ezarritakoaren araber: Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2k) artikulua, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikulua, eta xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2. artikulua.
- **Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzaren txostena,** Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren araber.
- **Familiaren Euskal Kontseiluaren txostena,** Familiaren Euskal Kontseiluari buruzko apirilaren 17ko 53/2012 Dekretuaren 4.a) artikuluan aurreikusitakoaren araber.
- Dekretu hau interesatzen zaien Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuei alegazioak eskatzea.

#### 6.11.- Nahitaezko eta funtsezko txostenak

Azkenik, XOEPLren 20., 21., 22. eta 23. artikuluetan xedatutakoaren araber, nahitaezko eta funtsezko txosten hauek eskatuko dira:

- **Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena,** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legean ezarritakoaren araber.
- **Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena,** Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90. artikuluan ezarritakoaren araber.
- **Legezketasunari buruzko nahitaezko txostena,** Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/2016 Legean ezarritakoaren araber.
- **Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena,** urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko

Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

#### 6.12.- Azken espedienteak eta memoria

Hasteko agindu honekin eta dagokion dokumentazio guztiarekin batera, egindako azterlanak eta kontsultak eta prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko zaizkio espedienteari, XOEPLren 24. artikuluan adierazitako edukiarekin.

Dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluak onartu beharko du, XOEPLren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### 6.13.- Gardentasuna

Dekretua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazioa Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratu beharko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

#### 6.14.- Europar Batasunaren aurreko izapideak

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 6/05 Zirkularrak, 2005eko abenduaren 15ekoak, EAEko sail eta erakunde autonomoen dirulaguntzen programa eta/edo deialdiei dagokienez Europar Batasunean egin beharreko izapideak kontrolatzeari buruzkoak, honako hau ezartzen du lehenengo atalean: "Diruz lagun daitezkeen programa edo deialdiei dagozkien espedienteek, Bulego honetara ekonomia- eta araudi-kontrolerako bidaltzen badira, arrazoitu egin beharko dute espedienteak Europar Batasunaren aurrean izapideren bat egin behar duen eta izapideak zertan diren, ordura arte egindako jarduerak justifikatzeko dokumentazioa barne. Espedienteak Europar Batasunaren aurreko izapiderik behar ez badu, behar bezala arrazoitu beharko da arrazoiak".

Horri dagokionez, adierazi behar da ez dela inolako laguntzarik jasotzen Europar Batasunetik xede horretarako, eta ez dela aurreikusten Europako Gizarte Funtsak kofinantatzeko aukerarik.

Horregatik guztiagatik, ez da beharrezkotzat jotzen Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea, agindu-proiektuaren aplikazio-eremua eta xedea eta helburua kontuan hartuta.

### **7.- Xedapenak uki ditzakeen subjektu eta erakunde adierazgarrien aurretiazko identifikazioa.**

Udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuak dira Balora tresnaren erregulazioak Euskal Autonomia Erkidegoan eragiten dien subjektu nagusiak. Oro har, haurrak eta nerabeak babesteko euskal sisteman sartzeko atea osatzen dute, eta arrisku- eta babesgabatasun-egoerak detektatzeko, hasierako balorazioa egiteko eta kudeatzeko arduradunak dira. Era berean, agintari eskudunak dira babes-neurriak hartzeko eta betearazteko, babesgabezia-deklarazioa barne.

Eusko Jaurlaritzari ere eragiten dio, haur eta nerabeen arloan eskumena duen zuzendaritzaren bitartez, euskal babes-sistema koordinatzea, gainbegiratzea, arauak bultzatzea eta koherentzia teknikoa bermatzea dagokion heinean.

Esku-hartze talde profesionalak, besteak beste, gizarte-lana, gizarte-hezkuntza eta psikologia, zuzenean eragindako beste kolektibo bat dira, haiek aplikatzen baitute tresna eguneroko jardunean. Baloraren eguneratzeak eragina du haren balorazio-metodologietan, erregistro-eta analisi-irizpideetan eta administrazio-erabakien oinarri diren txostenen oinarri teknikoetan.

Azkenik, EAEn haurren eta nerabeen eremuan jarduten duten hirugarren sektoreko elkarte, entitate eta erakundeei ere eragiten die, haien jarduera babes-sistema publikoarekin egituratzen den heinean.

## **8.- Testu artikulatuaren itzulpena edo idazketa elebiduna egiteko teknika zehaztea**

Lehen aipatu den bezala, arau hau ele bitan idatzi eta izapidetuko da, araudian jasotako hizkuntza-eskakizunei erantzungo dien testu bat bermatuz.

XOEPLren 5. eta 14.5 artikuluetan xedatutakoaren arabera, bai eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan jasotakoaren arabera ere, testua ele bitan idatzi behar da, bi hizkuntzen berdintasuna bermatuz hizkuntza-bertsioak egiteko orduan, araua idazteko prozesu osoan. Horregatik, testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurretik onartu eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik.

Era berean, XOEPLren 27.3 artikulua betetzeko, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat eman beharko du argitaratu aurretik.

## **9.- Instrukzioa egingo duen administrazio-organoa izendatzea**

Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritza izendatzen da agindu honen bidez hastea erabakitzen den araua egitea eta izapidetzea dakarren administrazio-prozeduraren instrukzio-organoa.

## **10.- Urteko araugintza-plana**

Arau-proposamena XOEPLren 8. artikuluan aurreikusitako Eusko Jaurlaritzaren 2026ko urteko araugintza-planean jasota dago.

## **11.- Inpaktu-ebaluazioen dossier erantsia**

Agindu honi erantsitako txostena Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko XOEPLren 13.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera egin da. Artikulu horren arabera, hasteko aginduari txosten bat erantsiko zaio, proiektatutako arauaren edo eragindako xedapenen inpaktu- eta emaitza-ebaluazioak edo bestelakoak jasoko dituen.

## ERANTSITAKO TXOSTENA

### 1.- Adierazi arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren izena:

XX/2026 Dekretu-proiektua, XXXXkoa, EAEn haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna arautzen duena.

### 2.- Adierazi zer sailek eta zuzendaritzak sustatzen duen:

Arau-proiektua Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saileko Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritzak sustatzen du.

### 3.- Adierazi, hala badagokio, proiektuarekin edo proposamenarekin lotutako beste arau, plan eta abar batzuk:

- 1/1996 Lege Organikoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa
- HNIOBL
- 2/2024 Legea, Haur eta Nerabeei buruzkoa
- 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
- 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa (aurrerantzean, Familiei Laguntzeko Legea).
- 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa
- EAEko Familiei, Hurrei eta Nerabeei Laguntzeko Erakunde arteko V. Plana

### 4.- Azaldu arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren helburu orokorrak

Dekretu-proiektua funtsezko tresna da gizarte-zerbitzuen jarduera-irizpideak eguneratzeko eta bateratzeko haur eta nerabeen babesaren arloan, esku-hartze homogeneousak, objektiboak eta juridikoki oinarrituak bermatuz.

Arauak honako hauei erantzuten die: arrisku-errealitateen bilakaerari, Balora tresnaren aplikazioan metatutako esperientziari eta Estatuko eta autonomia-erkidegoko arau-esparru berriekin bat egiteko beharrari, bereziki INBILOri eta Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legeari.

Haren helburua da detekzio goiztiarra indartzea, balorazio-adierazleak hobetzea, erabakien oinarri tekniko eta juridikoa ziurtatzea eta prebentzio- eta berme-sistema bat finkatzea, adingabearen interes gorenaren esku-hartze publikoaren ardatz nagusi gisa kokatuko duena.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, dekretuak eragin neutroa du; izan ere, haren edukiak ez du sexuaren arabera bereizketarik egiten, eta ez du arautzen berdintasun formalean zuzeneko eragina duen eremurik. Hala ere, garatzen duen tresnak aukera garrantzitsua eskaintzen du egiturazko desberdintasunak murrizten laguntzen duten

ikuspegiak txertatzeko, bereziki emakumeei, nerabeei eta neskei eragiten dieten indarkeriak detektatzeari dagokionez, hala nola genero-indarkeria, sexu-indarkeria edo indarkeria digitala.

Balorazio-sistema eguneratzeak aukera ematen du generoarekiko sentikorrak diren adierazleak integratzeko, kalteberatasun-egoera espezifikoaren identifikazioa hobetzeko eta errealitate bereizgarrietara hobeto egokitzen diren esku-hartzeak sustatzeko, eta, horrela, babes-ikuspegi bat indartzen da, diseinuan neutroa izan arren praktikan eraldatzailea izan daitekeena.